

**ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA
BERRIKUNTZARAKO EUSKAL
KONTSEILUAREN AKTA**

**LEHENDAKARITZA,
2016ko EKAINAREN 16a**

ETORRI DIRA:

Iñigo Urkullu jauna
LEHENDAKARIA

Arantza Tapia andrea
EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUNeko SAILBURUA

Ricardo Gatzagaetxebarria jauna
OGASUN ETA FINANTZA SAILBURUA

Cristina Uriarte andrea
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURAKO SAILBURUA

Jon Darpon jauna
OSASUNeko SAILBURUA

Unai Rementeria jauna
BIZKAIKO DIPUTATU NAGUSIA

Markel Olano jauna
GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIA

Ramiro Gonzalez jauna
ARABAKO DIPUTATU NAGUSIA

Iñaki Goirizelaia jauna
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREA

Cristina Iturrioz andrea (Jose M^a Gibert jaunaren ordez)
DEUSTO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREORDEA

Vicente Atxa jauna
MONDRAGON UNIBERTSITATEKO ERREKTOREA

Txema Villate jauna (Alberto García Erauzkin jaunaren ordez)
INNOBASQUE-KO PRESIDENTEA

Iñaki San Sebastian jauna (Javier Ormazabal jaunaren ordez)
TECNALIA-ko PRESIDENTEA

José Miguel Erdozain jauna (Iñaki Aranburu jaunaren ordez)
IK4-ko PRESIDENTEA

Jesús M^a Ugalde jauna
JAKIUNDEko PRESIDENTEA

Antón Pradera jauna
CIE AUTOMOTIVE-ko PRESIDENTEA

Fernando Querejeta jauna
IDOM-eko PRESIDENTEA

Jesús Peña jauna
LEHENDAKARITZAREN IDAZKARI NAGUSIA

EZ DIRA ETORRI

Fernando Cossio jauna
IKERBASQUE-KO PRESIDENTEA

José Luis San Pedro jauna
IBERDROLA-ko PRESIDENTEORDEA

Andrés Arizkorreta jauna
CAF-eko KONTSEILARI ORDEZKARIA

Lehendakariak agur egin die bertaratutakoei eta ongi etorria egin die Deustuko Unibertsitatea eta Tecnalia eta Ik4 eta Innobasque korporazio teknologikoak ordezkatzeko lagunei. Horren ondoren, aurreko akta onartzea proposatu dio kontseiluari:

1. Aurreko akta irakurtze eta onartzea

Erabakia: *“Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluak 2015eko abenduaren 15ean egindako bileraren akta onartu du”.*

2. Bileraren edukiaren aurkezpen orokorra

Lehendakariak bileraren gai-ordenaren aurkezpen orokorra egin du. Hasieran RIS 3 estrategia zabaltzearen 2. fasean egindako jardueren laburpena aurkeztuko da, baita planaren monitorizazioari eta ebaluazioari buruzko txostenaren sintesia ere. Kontseiluko kideei bidali zaie txosten hori, baliozta dezaten.

Ondoren, hainbat arlotako trakzio-proiektuek eta ekimen garrantzitsuenek –hala zientzia eta unibertsitate arlokoek nola hiru lehentasun estrategikoetakoek (fabrikazio aurreratukoek, energiakoek eta osasunekoek, alegia)– izan duten aurrerapenari buruzko aurkezpen labur bat egingo dute arlo bakoitzaren ardura duten sailburuek.

Halaber, Arantza Tapia Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuak Zientzia eta Teknologiaren Euskal Sarearen birmoldaketaren berri emango du.

Azkenik, Iñaki San Sebastianek eta José Miguel Erdozainek, hurrenez hurren, Tecnalia eta IK4 korporazio teknologikoen estrategia ZTBPr egokitzea aurkeztuko dute.

3. Jardueren laburpena: RIS 3 zabaltzearen 2. fasea

Jesús Peñak 2016ko lehen seihilekoan egindako jarduerak aurkeztu ditu, RIS Euskadi-ren eremu guztietako gidatze taldeen bigarren zabaltze-fasea garatu dela aipatuz (*). Gidatze talde bakoitzak 4, 5 edo 6 lan-talde eratu ditu, hau da, 30 bat talde ari dira RIS 3 zabaldutako eremuetan. Bestalde, RIS 3ko zenbait eremuren arteko lankidetzarako, gutxienez zazpi esparru identifikatu dira, zenbait lankidetzak proiektu eragiten ari direnak. Helburua da herri proiektu traktoreak bultzatzea arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren bitartez, ZTBPre helburuei eta Kontseiluak hartutako erabakiei jarraituta.

4. Planaren monitorizazioa eta ebaluazioa

Helburu operatiboen ebaluzio txostena

Innobasque-ren Idazkaritza Teknikoaren lankidetzarekin, 2020rako ezarritako helburu operatiboen aurrerapen mailari buruzko lehen ebaluzio txostena egin da Lehendakaritzan.

Ezarritako 15 adierazleetatik 12tan aurrerapen nabarmena ikusi da. Bilakaera positiboa ikusi da honako arloetako adierazleetan: I+G jardueren mix-ean; argitalpen zientifikoetan; produktu berrien salmentaren ehunekoan eta nazioarteko funtsak erakartzean.

Adierazi da 3 adierazle hobetu behar direla 2020ko helburuak erdiesteko: patenteak, enpresa berritzaileen ehunekoa eta enpresetan doktore titulua duten lagunen ehunekoa.

Ekonomiaren aldetik, eta Eustatek 2014. ekitaldiari buruz emandako azken datuen arabera, ZTBPN aurreikusitako inbertsioen betetze maila %97,3koa da. Administrazio publikoen kasuan %99koa da ehuneko hori. Eusko Jaurlaritzaren finantziario dela eta, eta erreferentziatzat hartuta 2015. urtean gauzatutako inbertsioa eta 2016. urtean onartutako aurrekontuak, kalkulatu da %100ean beteko direla ZTBPren 2014-2016 aldirako aurreikuspenak.

Kevin Morgan-en kanpo diagnosia

Azkenik, Kevin Morgan aditu eta aholkulariak, Orkestraren Mari Jose Aranguren eta J. Wilsonen lankidetzarekin, egindako ebaluzio txostena aipatu da; ekainaren 8an aurkeztu zen jendaurrean txosten hori Donostiako RIS 3 jardunaldietan.

Ondorio gisa, Kevin Morgan irakasleak euskal kasuaren hiru praktika on nabarmendu ditu:

- Jaurlaritzaren hasierako bultzada eta haren ahalmena estrategiaren zabaltzean partekatutako lidergoa sortzeko.
- RIS 3 lehentasunen hasierako identifikazioa, berrikuntzaren helize laukoitzari buruz – administrazioari, enpresei, teknologia eta unibertsitate zentroeiei eta gizarteari buruz, alegia– eragile guztien artean adostutako diagnosien arabera.
- Prozesua kanpoko kontrasteari irekitzea eta Aholku Batzorde Zientifikoaren garrantzia, estrategiak bizirik eta etengabe aldatzen iraun dezan.

5. Trakzio ekimen eta proiektuak aurkeztea

Zientzia eta unibertsitate alorra

Cristina Uriarte sailburuak RIS 3 zabaltzearen aurrerapena aurkeztu du. Arreta jarri du, batez ere, zientzia eta unibertsitate alorreko trakzio proiektuak identifikatzean eta bultzatzean, baita Euskal Unibertsitate Sistemako bikaintasuna ikertzeko talde finkatuak “RIS 3 estrategian” ezarritako lehentasunekin parekatzean ere.

Aukeratutako proiektuak (*) aurkeztu ditu, trakzio proiektutzat jotzeko baldintzak betetzen dituzte eta proiektuok: bikaintasun zientifiko-teknologikoa; garrantzi ekonomikoa, nazioartekotzea,

bateratzea eta eragin soziala. Fabrikazio aurreratuan eta bio-osasunaren alorrean kokatzen dira proiektuok, eta azken alor hori gero eta gehiago sendotzeko joera erakusten dute.

Horien garapenean, bikaintasun zentroz gain (BERC), elkarlanean ari dira ikerketa kooperatiboko zentroak, enpresak eta sektoretako ikerketa institutuak. Gainera, proiektu askotan europako zentroekin ari dira lanean.

Unibertsitate sistemako bikaintasuneko ikerketa zentroak direla eta, aipatu du 200 programa baino gehiago direla bikaintasuneko unibertsitate ikerketan abian daudenak. Horietako talderik nabarmenenak (A taldeak) (*) sendo lerrotuta daude "RIS 3" estrategiarekin, batez ere hiru lehentasun estrategikoetan.

Azkenik, aipatu du bikaintasunerako unibertsitate talde horiek finantzatzeko Jaurlaritzak urtero 19 milioi jarriko dituela laster ebatziko den talde-deialdian. Deialdi horretan jasotzen ari da ikerketa ildoak bat etorri behar dutela "RIS 3" estrategiarekin.

Fabrikazio aurreratua eta energia

Arantza Tapia Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun sailburuak hartu du hitza, fabrikazio aurreratuaren eta energiaren gidatze taldeen aurrerapenak aurkezteko.

A) Fabrikazio aurreratuaren gidatze taldea:

"Industria 4.0" ezartzeko helburuan aurrera egiteko, lehentasuneko lau esparru teknologiko identifikatu dira: aurreraturako material eta prozesuak, fabrikazio sistema malguak eta adimentsuak, eraginkortasun energetikoa eta konektaturako fabrika digitala. Beste bi esparru horizontal garatzea ere aipatu da: negozio eredu berriak eta talentu berrirako prestakuntza.

Horri esker, 8 ekimen estrategiko identifikatu du, euskal ehun industrialak "industria 4.0" bilakatuko dutenak. Horien artean, enborreko hiru ekimen aipatu ditu: banaturako eta konektaturako fabrikazio adimentsua; Basque Open Industry Plataform 4.0; eta Zerbitzu aurreratuak 4.0.

Bereziki, talentuaren heziketan eragin zuzena duten ekimenak aipatu ditu, STEAM (Sciencia, Tecknology, enginnering; Arts, Mathematics) estrategia, batez ere.

Ildo horretan, era aktiboan ari da lanean hezkuntza, unibertsitate eta lanbide hezkuntzako sailburuordeekin.

Azkenik, interes partekatuko 4 alor identifikatu dira fabrikazio aurreratu eta biozientzien, energiaren, ekosistemen eta kultura eta sormen industriaren artean.

B) Energiaren gidatze taldea

Energiaren alorrean, 8 lantalde zabaltzen egin da lana; 116 erakundek eta 200 lagunek hartu dute parte. Prozesu horri esker, ekimen estrategiko batzuk (*) identifikatu dira aurretiaz.

Azpimarratu du ur gaineko laborategi baten ekimen estrategikoa, offshor-ean osagaiak aztertzeke, haizearen alorrean, petrolio/gasarenean eta itsas alorrean erabili daitekeena. Diseinu fasean dago laborategia orain.

Halaber, Vanguard ekimena nabarmendu du, funtsezko elementua baita Euskadi nazioartean kokatzeko. Ekimen horren hurrengo urratsak izango dira bide-orri teknologiko bat garatzea eta Europako 10 trakzio-enpresekin industry leadership Commite delakoa sortzea.

Azkenik, berretsi egin ditu energia alorraren eta fabrikazio aurreratuaren, ekosistemen, habitat hiritarraren eta agenda digitalaren alorren arteko interes komunekin proiektuak.

Energibaske estrategia berriaren helburua da urtero %7,6 haztea 2020ra arte eta haren pisu erlatiboa igotzea %18tik %20ra igotzea euskal I+G jardueran.

Bio-osasuna

Jon Darpon sailburuak aurkeztu ditu biozientzia eta osasun arloko gidatze taldeetan abian jarri diren lantaldeak: gaixotasun arraroen lantaldea; medikuntza pertsonalizatuarena; osasun digitalaren lantaldea; azterketa aurreratuaren lantaldea; eta big data-arena. Horietako bakoitzean zeharkako ezartze eremuak zehaztu dira eta ekintza planak eratzten ari dira ikerketarako trakzio proiektu berriak mobilizatzeko.

Biosasunaren arloko ekimen estrategikoak direla eta, aurrerako urratsak ematen ari dira INNOSASUN programan, EROSKETA PUBLIKO BERRITZAILEAN, BALIOSASUN programan eta EIP-AHA programan, osasuna eta bizi-kalitatea areagotzeko 2020 arte.

Lantalde eta ekimen horien inguruan 200 ikerketa egitasmo baino gehiago garatzen ari dira. Horien artean, 80 trakzio proiektu identifikatu dira aipatutako alorretan (*).

6. ZTBES berrantolatzea

Arantza Tapia sailburuak laburtu du zein prozesuri jarraitu zaion Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarea berrantolatzeko, 2015eko ekainaren 23an onartutako berrantolatze dekretuari jarraiki. Honako hauek izan dira berrantolatzearen ardatzak:

Merkatuarekiko hurbiltasuna, garapen esperimentalerako I+G jarduerak gehituz.

Espezializazioa, RIS 3 alor estrategikoekiko lerrokatze handiena bultzatuz.

Bikaintasuna, jarraipen eta ebaluaziorako adierazleen taula bat ezarriz.

Prozesuaren ondorioa izan da Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sare berria 11 mailatan egituratzea eta eragile kopurua 158tik 120ra gutxitzea.

Azkenik, sareko eragileen jarduera eta ezarritako emaitzak erdiesteko aurrerapena ebaluatzeko aginte taula eta adierazleak aurkeztu ditu sailburuak.

7. Korporazio teknologikoen estrategia ZTBP Euskadi 2020ri egokitzea

TECNALIA

Iñaki San Sebastianek aurkeztu du Tecnaliaren 2020 estrategia. Adierazi du estrategia hori ZTBES berrantolatzearekin eta ZTBP 2020 onartzearekin batera egiteak erraztu egin duela Tecnalia ZTBPko tresna, politika eta helburuekin lerrokatzea.

Azpinarratu du Tecnalia dela estatuko lehen erakunde pribatua "Horizon 2020" programa europar berriko proiektuetan parte hartzen eta proiektuok erakartzen, eta 32.000 erakunde europarretatik 23garrena dela aipatutako programa europar horretako partaidetzan.

Azkenik, nabarmendu du Tecnaliaren negozio banaketa eta alorrak baita Bikaintasun Zientifikoko 9 taldeak guztiz bat datozela "RIS 3 Euskadi" estrategian ezarritako lehentasun estrategikoekin eta aukera txokoen, batez ere fabrikazio aurreratuan, energian, bio-osasunean eta habitat hiritarrean.

IK 4

José Miguel Erdozainek aurkeztu du IK 4ren estrategia, ikerketarako 9 zentro teknologiko hauen aliantza pribatuarena, alegia: Azterlan; CEIT; CIDETEC; GAIKER; IDEKO; IKERLAN; LORTEK; TEKNIKER eta VICOMTECHena. IK 4k, guztira, 111 milioi euro fakturatzen ditu eta 1.274 laguni ematen die lana; horietako ia %30ek doktore titulua dute.

"RIS 3" estrategian lehentasunezko zatitako hiru alorretan dihardu gehienbat IK 4k. Fabrikazio aurreratua, garraioa eta mugikortasuna da IK 4ren negozioaren %64. Energiaren alorrekoa da %18; eta osasun alorrekoa, %13. Gainontzeko %5a aukera txokoetara bideratzen da: kultura eta sormenera; ingurumen ekosistemetara; eta elikadurara, batez ere.

8. Erabakiak

Parte hartzeak eskertu ondoren, honako erabaki hauek hartu dira, kontseiluak aztertu ondoren:

- 1. RIS 3 espezializazio adimentsuaren estrategia zabaltzeari buruzko lehen ebaluazio eta jarraipen txostena onartzea; ZTBP 2020ren webgunean jarriko da txostena, herritarrek horren berri izan dezaten. Ildo horretan, berriaz nabarmenduko dira enpresa berritzaileen adierazleen bilakaera, patente eskariak eta doktore diren ikertzaileak euskal enpresetan sartzea.**
- 2. RIS 3 estrategia abiaraztean Euskal Kasuaren esperientziari buruz Kevin Morgan irakasleak, ORKESTRaren Mari Jose Aranguren eta J. Wilsonen lankidetzarekin, egindako kanpo txostena balioestea, eta txosten horretan aipatutako erronkak eta bertan bildutako praktika egokiak aintzat hartzea.**
- 3. Gidatze taldeak animatzea, lan taldeak zabaltzen jarrai dezaten lehentasunezko alor teknologikoak garatzeko eta lankidetzarako herrialde-proiektu traktoreak bultzatzeko.**

9. Galde-eskeak.

Ekarpenen alorrean, denen iritzia da beharrezkoa dela batez ere matematiketan prestatutako pertsonak izatea, ahalik eta ondoen ustia ditzaten eskuragarri dauden informazio kopuru handia. “Big data” iraultzak eskura jarritako informazioa izateaz gain, informazio hori erabiltzen jakin behar da, irtenbide praktikoak eta negozio eredu berriak arakatzeko. Ildo horretan, EHUko errektoreak nabarmendu du kalitate eta izen bikaina dutela EHUko matematika espezialitateko lizentziatu eta doktoreek eta munduko 200 unibertsitate onenen artean dagoela EHU. Gizartearen eta enpresen erronka da ahalmen horretaz baliatzea eta euskal enpresetan eta erakundeetan.

Deustuko Unibertsitateko errektore ordeak, bestalde, proposatu du hiru unibertsitateek kontseiluaren hurrengo bilera batean aukera izatea beraien ikerketa ahalmenak eta RIS 3 estrategiarekiko lerrokatzea aurkezteko. Hori guztia, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sistemako eragile guztiek lankidetzan estutu eta baterako proiektuak garatzeko helburu partekatua erdieste aldera.

Beste aztergairik egon ez denez, 18:30ean amaitu da bilera.

Jesús Peña Martínez

ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZARAKO EUSKAL KONTSEILUAREN IDAZKARIA

(*) Informazioa: ZTBP webean: <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/ztbp-2020/>